



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Euskaldunon zoriontasun maila? Zerotik hamarrera... gertaeren arabera”

Naroa Iturri | Brigadista

Telebistan agertzen zaigun presentzia oparoko kazetaria.
Horrelakoa da bizitza saioa egiten du orain.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Maddi Soroa

Bi norantzako izen-abizenak daramatzazu... Ba al zara inoiz Iturri Naroa?

Ufff, a ze galdera... Horrelakoak ez zizkiguten EHUn erakutsi! Naroa Iturri, Iturri Naroa, bi norantzakoa eta batekoa. Bigarren abizenarekin geratuko naiz, Lizarribar.

Dena den, ondo etorriko litzaizuke sexuaz aldatuz gero...

Falta zitzaidana! Ia 1,80 neurtzen dut, ez naiz bate-re fina, *señorita*. Lagunek poteoan nagoenean dudak jarraz barre egiten didate, hankak zabalik egoten naizelako eta bertso bat botatzeko itxurarekin. Agian sexu aldaketa gabe ere...

Askapenako brigadista izan zara Bolivian eta autonomia prozesurik ez omen duzu nahi.

Boliviako autonomia prozesua oligarkek eta AEBk bultzaturiko prozesu banatzaile eta ustela da, horrekin ez nator bat. Baina autonomia eredutzat har daiteke, autonomia eta erabakia.

Eredu ala eskubide?

Eskubidea! Ea, autonomia eskubidea, autodeterminaziorako eskubidea, herri guztiok dugu. Horretan gailtza gurean ere, baina Bolivian autonomia ekialdeko lau departamenduetarako eskatzen dute, hau da, errekurso naturalak dauden lurraldeetarako. Helburua? Aberastasunen kontrol eksklusiboa oligarken, kanpotarren, txurien, esku geratzea.

Gauza asko ditugu eskasak gure inguruan, kexatzeko mila arrazoi, baina hala ere harro sentitzeko eta zoriontsu izateko arrazoiak ere baditugu. Zerotik hamarrera... gertaeren arabera.

EITBk zenbat ordaindu dio –bataioaren truke– Fermin Muguruzari?

Akaso bi kalimotxo eta Moskuko haragi bola bat, akaso dirutza, batek daki. Nik behintzat ez!

Euskarazko telebista zergatik ikusten da behar baino gutxiago?

Askotan galdetu diot neure buruari baina ez dakit. Ohitura kontua, gustu kontua, eduki kontua...

Zuen kasuan, audientzia eskasa jasoz gero... ildo editoriala betetzen ari den seinale?

Eskasa... Beno, euskal ikusleen kopurua ikusita... Nik uste euskal gizarteko esparru zabal batera bideratzen dela saioa eta ildo edo ez, ni gustura nago. Saio duina egiten dugu!

Egia da telebistako birjintasun profesionala Iñigo Agirre kazetariarekin apurtu zenuela?

Bai, *Bertatik Bertara*-n hasi ginen bekadun elkarrekin eta ikasi ere elkarrekin ikasi genuen kazetaritza, hori bai... beti kondoiarekin! Kar, kar...

Aitagarreba duzu Luis Elberdin sexologoa. Zauriaren aurretik tiritatzen?

Zapatariak beti zapata zaharrak! Baina egia da, gaur egun merkatuan oso tiritatzen ikus daitezke. ■

ARGIA

4

Horrelakoa da bizitza telebista saioan lan egiten duzu. Euskaldunon zoriontasun maila, zerotik hamarrera?